

## Osalaneko autobusak Enpresa Zientzien Fakultatean

2009/01/22

OSALAN eko autobusak, Enpresa Zientzien Fakultatea bisitatu du lan arriskuen prebentzioari buruzko kanpaina bat zabaldu nahiean. Lan Zuzenbideko ikasgaiari loturik, 4 ikasle talde pasa dira bertatik: LADE 3, Ziklotako ikasleak eta Idazkaritza Zuzendaritzako ikasleak hain zuzen ere.

Saio bakoitzean, lehenengo ordu erdian zehar izan daitezkeen lan arrisku ezberdinak eta horiek ekiditeko aplikatu ditzakegun babes neurriak zeintzuk diren azaldu digute, bereziki ergonomiari erreferentzia eginez. Bisitaren 2.zatian, ikasleek ordenagailuan joko bat egin dute. Bertan lanpostu ezberdinetako irudiak agertzen ziren beraien eginbeharretan eta ikasleek jokoak eskeintzen zituen babes neurri, seinalizazio... guztien artean egokiena zein zen asmatu behar zuten.

